



## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

### GOBERNU JUNTA ERATZEKO 2019KO IRAILAREN 17AN EGINDAKO BILKURAKO AKTA

#### BERTARATUAK

#### Udalek izendaturiko ordezkariak

##### Ordezkariek

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MARIA UBARRETXENA CID  
ANDER GARAY ZABALETA  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ARITZ MURUA ACHA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA  
ROBERTO OTAZU ARRONIZ (ordezkoa)  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO  
MAITE ANTON LENO

##### Udalak

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI  
OÑATI

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2019ko irailaren 17an, 13:00etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko hamasei ordezkariak bildu dira, horien zerrenda aktaren hasieran dagoelarik.

Halaber, bilera honetan dago Mankomunitateko behin behineko idazkaria, Belen Txintxurreta Iparragirre, eta behin behineko kontu-hartzailea, Ander Elortondo Bergaretxe.

Bilera honen helburua Mankomunitateko Gobernu Junta eratzea da, Estatutuetako 11. artikulua ezartzen dutena betez eta ondorengo gai-zerrendaren arabera:

- 1.- Gobernu Juntaren eraketa.
- 2.- Lehendakariaren eta lehendakariordearen izendapenak.
- 3.- Kontu korrontek eta fondoak erabiltzeko sinadurak baimentzea.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **1.- Gobernu Juntaren eraketa**

Mankomunitateko Estatutuen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, Adineko Mahaia eratu da, ondorengoek osatuta: JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIAK, Eskoriatzako Udaleko ordezkariak, zaharrena delako, eta GORKA ARTOLA ALBERDIK, Bergarako Udaleko ordezkariak, gazteena delako; zaharrenak lehendakari lanak egingo ditu eta idazkari-lanak Mankomunitateko behin-behineko idazkariak, BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRREK, egingo ditu.

Ezarritako prozeduraren arabera, Adineko Mahaiak Mankomunitateko Gobernu Junta osatzeko udalek izendaturiko ordezkarien nortasun-agiriak eta izendapenak egiaztatu ditu.

Karguaz jabetzeko legezko tramite guztiak bete ondoren, Udaletako ordezkari guztiak Gobernu Juntako kide gisa dagokien karguaz jabetu dira lehendakariaren aurrean, ezarritako forma orokorraren arabera, eta lehendakariak eratzat aldarrikatu du Gobernu Junta.

### **2.- Lehendakariaren eta lehendakariordearen izendapenak**

Mankomunitate honetako Estatutuek 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehendakaria eta lehendakariordea aukeratu behar dira, bi kargu hauek ezingo dituztelarik inola ere Udal bereko ordezkariak bete.

Lehenengo botazioan emandako botoen gehiengo absolutua lortzen duena izango da lehendakari hautatua. Ez badago hautagairik lehenengo botazioan gehiengo absolutua lortzen duenik, ondoren beste botazio bat egingo da, eta emandako botoen gehiengo sinplea lortzen duen hautagaia izango da lehendakari aldarrikatua. Berdinketak irauten badu, hau zozketa bidez erabakiko da.

Berdin jokatuko da lehendakariordea hautatzeko, horretarako beste botazio bat eginez.

Lehenengo lehendakaria aukeratu da.

#### **a) LEHENDAKARIA**

Honetarako, bildutako bakoitzari orri bat eman dio idazkariak, bertan udalek izendaturiko 16 ordezkarien izenak agertzen direlarik, bakoitzak "x" batez marka dezan nahi duen hautagaia.

Orri guztiak bildu eta botoak zenbatu ondoren, hona hemen emaitza:

- |                                 |   |
|---------------------------------|---|
| • MAITE ANTON LENO              | 8 |
| • BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA | 1 |
| • BOTO ZURIAK                   | 7 |



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Lehenengo botazio honetan inork ez duenez lortu botoen gehiengo absolutua, bigarren botazio bat egin da, ondorengo emaitzarekin:

- MAITE ANTON LENO 8
- BOTO ZURIAK 8

Beraz, MAITE ANTON LENO Juntakideak lortu du botoen gehiengo sinplea.

### b) LEHENDAKARIORDEA

Era berean jokatu ondoren, lehen botazioan honako emaitza hau lortu da:

- BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA 8
- BOTO ZURIAK 8

Inork ez duenez lortu botoen gehiengo absolutua, bigarren botazio bat egin da, ondorengo emaitzarekin:

- BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA 9
- BOTO ZURIAK 7

Bigarren botazio honetan BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA Juntakideak lortu du botoen gehiengo absolutua.

Azkenik, Adineko Mahaiak esan du, botazioen emaitzak ikusita, Mankomunitateko **LEHENDAKARI, MAITE ANTON LENO** anderea izango dela, Oñatiko Udaleko ordezkaria; eta **LEHENDAKARIORDE, BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA** jauna, Antzuolako Udaleko ordezkaria.

Ondoren, bi ordezkariak beren karguak onartu dituzte eta kargu horiek indarrean dauden Estatutuek eta gainerako xedapen aplikagarriek ematen dizkieten ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin zertzeko hitza eman dute Gobernu Juntaren aurrean. Dena den, Beñardo Kortabarriak jakinarazi du berak onartzen duela lehendakariorde kargua baina denboraldi labur baterako izango dela, asmoa baita Gobernu Juntarako Antzuolako ordezkari titularra aldatzea.

### 3.- Kontu korranteak eta fondoak erabiltzeko sinadurak baimentzea

Karguak izendatu ondoren, eta lanean hasi ahal izateko, atzerapenik gabe, aho batez ERABAKI DA:

- Ondoren zehaztuko diren kargu politiko eta teknikoaren sinadura baimentzea, Mankomunitatearen kontu korranteetako fondoak erabil ditzaten



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### Baimenak

- 1.- Lehendakaria/lehendakariordea (bereizketarik gabe).
- 2.- Kontu-hartzailea/ kontu-hartzaitzako administraria (bereizketarik gabe).
- 3.- Idazkaria/ kontu-hartzaitzako administraria (bereizketarik gabe).

Kontu bakoitzean hiru sinadura erabili behar dira batera.

Bilkuraren xedea bete delarik, lehendakariak bukatutzat eman du 13:30etan, eta esandako guztiaz nik, idazkariak, fede ematen dut.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**